




EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%1,6



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Tasa hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere azken agertoki makroekonomikoan aurkeztutako aurreikuspena baino bi hamarren handiagoa da. Nahiz eta kanpo sektoreak bilakaera txarra izan, urteko lehen bi hila-beteetan esportazioek beherakada garrantzitsua izan zituzten (urtarrilean %12,7 eta otsailean %10,2 murriztu ziren), badirudi zerbitzuen sek-

torearen sendotasunak konpentsatu zituela beherakada horiek eta hazkundearen eragile nagusia izan zela.

Hiruhileko arteko tasetan ere irakurketa positiboa izan zen; izan ere, 2023ko bigarren hiruhilekoan hasitako goranzko bidea sendotu zen, eta BPGaren hazkundera %0,5ean mantendu zen.


Bi aurrerapen horiek erresilientziaren eta egonkortasunaren irudia indartzen dute, duela urtebetetik hona hedatzen ari dena.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%2,0

Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomiko-en arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, urte arteko %2,0 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, eta duela urtebete hasitako goranzko joera ere sendotzen du. Hori horrela, azken urtean lanaldi osoko 19.500 lanpostu inguru sortu dira, eta 1.000.000 enpleguko mailara hurbildu da, 2008az geroztik jaso den erregistrorik onena baita.



Hiruhileko arteko terminoetan, EAEko enplegua %0,5 hazi zen, eta horrek aldatu egiten du, partzialki, 2023aren amaieran izandako moteltzea. Azkenik, urte arteko zenbatespena bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindakoarekin, eta hiruhileko artekoa labur samar geratu zen (%0,3).


Enpleguaren bilakaera on horrek familien gastu ahalmena handituko du eta kontsumo pribatua bultzatuko du.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5



Iturria: Eustat.